

Ordizian, **2013ko ekainaren 27an**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **OHIKO BILERA** egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jn.

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra and.

BESTE BERTARATZE ETA AUSENTZIAK

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

1.- 2013ko maiatzaren 29an ohiko deialdian egin zen osoko bilkuraren akta onartzea.	4.orr.
2.- Gipuzkoan erraustegia irekitzearen kontra BILDUK aurkeztutako mozioa.	5.orr.
3.- Txingudi Gipuzkoako hondakinen partzuergoan sartzearen alde PSE-EE(PSOE)k eta EAJk aurkeztutako mozioa.	7.orr.
4.- Hezkuntza kalitatea hobetzeko Lege Erreformari buruzko mozioa, BILDUK aurkeztutakoa.	7.orr.
5.- Hezkuntza kalitatea hobetzeko Lege Erreformari buruzko mozioa, PSE-EE(PSOE)k aurkeztutakoa.	7.orr.
6.- Adineko pertsonen jasotzen duten tratu txarren aurka sentsibilizatzeari eta horri aurrea hartzeari buruzko mozioa, PSE-EE(PSOE)k aurkeztutakoa.	9.orr.
7.- Hipoteka Legeari eta Gehiegizko klausulei buruko mozioa, PSE-EE(PSOE)k aurkeztutakoa.	
8.- EHGAMen eskariz BILDUK aurkeztutako proposamena, sexu askatasunaren nazioarteko eguna dela eta Jackes etxean bandera ipintzeko.	13.orr.
9.- Ekonomia eta Finantza Plana onartzea Aurrekontu Egonkortasuna lortzeko.	14.orr.
10.- Kreditu transferentzien espedientea onartzea.	16.orr.
11.- Kreditu gehigarrien espedientea onartzea.	17.orr.
12.- Ordiziako 6. industrialdeko B-3 letrako industria-nabea erosteko proposamena.	19.orr.
13.- 2012ko Kontu Orokorrak onartzea.	21.orr.
14.- Osoko bilkuran kontu emateko finantza- eta aurrekontu-informazioa.	22.orr.
15.- Alkatetza Dekretu bidez onartutako kredituen aldaketen kontu ematea.	23.orr.
16.- Elkargiren abalaren exekuzioagatik administrazioarekiko auziaren inguruko epaiaren berri ematea.	24.orr.
17.- Goierriko Ekimena SAren 2012ko ekitaldiko memoria, balantzea eta galera eta irabazien kontuak onartzea.	
18.- parra-hegoa kooperazio programaren barruan ordiziar borondatezko lankideari diru-laguntza.	25.orr.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19.05ak.

AMAIERA ORDUA: 20:30ak.



Alkate jaunak bilera hasi aurretik, irakurri ditu gai zerrendako puntuak, eta **aho batez** gai zerrendatik honako gai hauek ateratzea erabaki zen:

- 4.- Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko Lege Erreformari buruzko mozioa, BILDUK aurkeztutako.
- 5.- Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko Lege Erreformari buruzko mozioa, PSE-EE(PSOE)k aurkeztutakoa.
- 7.- Hipoteka Legeari eta Gehiegizko klausulei buruzko mozioa, PSE-EE (PSOE)k aurkeztutakoa.

Hiru gai horietan ahalegin bat egin behar da hurrengo Udal Osoko Bilkurarako zeozer adostuta ekartzeko.

8.- Goierriko Ekimena S.A.ren 2012ko ekitaldiko memoria, balantzea eta galera eta irabazien kontuan onartzea.

Kendu da, zeren eta ez zen aztertu Plenoko Gai Batzordean, eta dokumentazioa ez zaie banatu zinegotziei.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2013ko maiatzaren 29an ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2013ko maiatzaren 29an ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte

Asenjo jn.

4. puntuan bere interbentzioan “erantzun dio gaur egun edukiontziak haize-presioan bitartez garbitzen direla” jartzen duen lekuan, esaten du jartzeko “Ironia erabiliz erantzun dio gaur egun edukiontziak haize-presioan bitartez garbitzen direla”.

Dubreuil jn.

2. puntuko alkate jaunaren azken interbentzioari dagokionez, adierazi du ez dagoela ondo erredakzioa.

Alkate jn.

Bere interbentzioa irakurri du, eta bere esanahia esplikatatu du, eta horren arabera ikusi da ondo dagoela.

Azkenik Asenjo jaunak eskatutakoaren zuzenketa eginda, bozkutzen da.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

2.- Gipuzkoan erraustegia irekitzearen kontra BILDUK aurkeztutako mozioa.

ZIOA:

Ordiziako Bildu Udal taldearentzat ezinbesteko garrantzia duen gaia da, izan ere, gure etorkizun hurbila hipotekatuko lukeen makroproiektu toxikoa baita.

EBAZPEN PROPOSAMENA:

Ordiziako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari zein Gizpuzkoako Hondakin Konsortziori (GHK) errauskailurik Gipuzkoan eraiki ez dezaten eskaera luzatzen die, jakitunik guztion ardua dela gutxi batzuen interes ekonomikoen gain guztion osasuna, ingurumena eta jasangarritasun ekonomikoa lehenestea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo in.

Irakurri du Nafarroako Berriplano herrian aurkeztutako mozio bat, eta adierazi du ez dela Bildu taldeak idatzitakoa baizik eta alderdi sozialistak herri horretan aurkeztutakoa, eta horren arabera Dubreuil jaunari eskatu dio koherentziaz jokatzeko eta aurkezten den mozio honi aldeko bozka emateko.

Dubreuil in.

Erantzun dio berak ez dakiela zer egiten duten Nafarroa, Madrilera eta abarreko bere kideek, pentsatzen du beren hondakin politika izango dutela, eta beste alderdiekin negoziatzen ari direla hondakinen jentzioa nola egin; jarraitu du esanez hemen negoziaketa hori orain dela urte dextente izan zela, eta asko kostatu bazen ere, adostasun batera iritsi eta horren emaitza "PIGRUG" delako plana dela, eta hor aurreikusten dela erraustea. Nahiz eta irakurri den mozioan azaldu erraustea oso kutsakorra dela, Europar bai gaia aztertu zen Batzordeetan eta baita Europako Legebiltzarrean inon ez dela azaltzen erraustea kutsakorra bezala; aldiz bai esaten dute zabortegiak itxi egin behar direla; zuek zabortegi zikloaren amaiera bezala kontsideratzen duzue eta gu aldiz erraustea kontsideratzen dugu zikloaren amaiera; azterketa gehien arabera errausketa, ez da kutsakorra, energia berriztatzen da, eta Europa barruan inongo arazorik gabe erabiltzen den sistema da, baita Katalunan, nahiz eta herri txiki batzuetan atez-ateko sistema eduki, 4 edo 5 errauskailu daude, eta ez daki herri honetan zergatik aurrerapenari atek jarri behar zaizkion; bukatu du esanez Alderdi Sozialista serioa izan nahi duela, bai Euskal Herrian eta baita Gipuzkoan, plan bat dagoela, eta dagoen plana aurrera jarrai dezala nahi dutela.

Santamaria in.

Adierazi du irakurritako mozioak beldurra eragiten duela, eta Alderdi Sozialistak Europako arautegia aipatu duenez, arautegi horretan denak ados dauden kontzeptuak erabiltzen direla: berrerabili, birziklatu, eta abar; ondoren Alemaniako berdeen adibidea jarri du, orain erraustea balorapen energetikoaren alde daudela aipatuz, eta mozioak beldurra eragin nahi duela berriro azpimarratu ondoren, bukatu du esanez ez dela hemen osasun gaiak eztabaidatzen hasiko, eta ezta birziklatze tasaren portzentaiari buruz ere.

Alkate in.

Adierazi du, bakarrik honako hauek gehitu nahi dituela entzundako hitzak entzunda, alderdi sozialistari esan erraustegiak dituen ondorioak, hau da eskoria eta erraus toxikoa nora doazen, eta horiek zabortegi toxikoetara joaten badira ere, hori diskurtsoan ez dela esaten; eta EAJ taldeari esan mozio honek prozesu guzti honetan ausartu ez zarenez, zuen beldurrak arindu eta mozio honen helburua dela erakustea erraustegiaren alde zaudeten ala ez bozkatzea; ez da kutsakorra izango, poztan da Europako berdeekin zerbaitetan ados egotea, eta gero hausnarketa bat egiten du, hau da erraustegia jartzeko kokalekuari dagokionez, hasiera batean 3 leku desberdinak pentsatu ziren, eta hiru herri horietan agintean hiru alderdi desberdinak bazeuden ere, hiruek aho batez ezetza borobila eman zioten, eta gaur egun errauskailua Zubietan jarri behar denez, ematen du erabakia hartzea errazagoa dela, eta bukatu du esanez berriro mozio honekin jakin nahi dela ea Ordiziako EAJ taldea Zubietako errauskailuaren alde dagoen ala ez.

Asenjo in.

Adierazi du bi aipamen txiki egin nahi dituela, ez duela berriro testua irakurriko zeren eta testua oso ondo dago, oso ondo garatuta dago, sakona da eta datuetan oinarrituta; gogoraraztea Berrioplano hemendik baino ordu betera baino gutxiago dagoela, eta mozio hau bozkatu zenean, EAJ taldeko GEROA-BAI koalizioak ere alde bozkatu zuela, eta errauskailuaren kontra agertu zuela bere burua, eta Santamariak aipatu badu ere errauskailua eta balorapen energetikoa, duela hilabete pare bat EHU katedratiko eta irakasle talde batek deseustatu egin zuela baieztapen hori, hau da Gipuzkoan eraiki behar den errauskailua ez dela inolaz inora balorapen energetikoa lortzeko errauskailua.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7,)

Kontrako botoak: 1 (PSE-EE (PSOE)1)

Abstentzia: 5(EAJ 5)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

3.- Txingudi Gipuzkoako hondakinen partzuergoan sartzearen alde PSE-EE(PSOE)k eta EAJk aurkeztutako mozioa.

Proposamena

Hondakinen kudeaketa gipuzkoarrantzat arazo larria bihurtu da. Egun, indarrean dagoen Gipuzkoako Hiri-Hondakinak Kudeatzeko Plan örokorrak honako helburua du: Hiri-hondakinen kudeaketan herritarrei kalitatezko zerbitzua ematea eta, horretarako, kostua Gipuzkoa osoan antzekoa izango da eta ingurumena babestu beharko du, betiere, araudiari eta garapen jasangarriaren irizpideei jarraituta. Gipuzkoan, Hiri-Hondakinen Kudeaketarako Planaren barruan, zorlzi mankomunitate daude: Sasieta, Urola Erdia, Urola Kosta, Debagoiena, Debabarrena, Tolosaldea, San Marcos eta Txingudi. Mankomunitate horiek eta udalek hiri-hondakinen kudeaketa bere gain hartzen dute.

Jasotako zaborrei tratamendu egokia eman ahal izateko, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa sortu zen. Partzuergo hau, Gipuzkoako zazpi mankomunitatek (denak Txingudi izan ezik) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak osatzen dute. Dena den, erakunde hau gipuzkoar guzliei zerbitzua emateko asmoarekin jaio zen eta honetaz gain, Gipuzkoako alderdi politikoek behin eta berriz adicrazi dute zaborren tratamenduaren arloan, Partzuergoaren asanblada foro egokia dela gipuzkoar guztiok eztabaidalzeko eia adostasunak lortzeko.

Dena dela, gaur egun, Txingudiko mankomunitateak oraindik ezin du Partzuergoaren kide izan eta asanbladan parte hartu, beste mankomunitate guztiekin batera.

Egoera hau, borondate politikoarekin erraz konpondu daiteke. Äitzitik, borondate politiko hau ez adieraztea, apartheid politikoaren aldeko ekintza bezala ulertu beharko Htzateke.

Beraz, eta honen guztiaren ondorioz, Ordiziakoko Udal Batzarrak , honako a onartzen du:

1. Ordiziakoko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan dituen ordezkariari eskatzen die, Txingudiko mankomunitateak Partzuergoan sartu ahal izateko hartu behar diren akordioak onartu ditzatela.
2. Ordiziakoko Udalak bere aldeko bozka ematen du Txingudi Mankomunitateak lurraldeko beste mankomunitate guztiek bezalaxe parte hartu dezan Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan bere bctebegar eta eskubide guztiekin

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn.

Adierazi du EAJ taldearekin batera adostu dutela mozio hau, ulertzen dutelako Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseilua Txingudi Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan sar dadin aurka agertzen ari dela, bakarrik gehiengo edo gutxiengo batzuk mantentzeko, eta beraien ikuspegitik lan egiteko; azpimarratu du mozioa hau Juntetan ere aurkeztu dela; jarraitu du esanez ulertzen dutela dagoen epai judiziala ezin dela oztopo bat izan Gipuzkoako mankomunitate guztiak Gipuzkoako hondakinen partzuergoko partaideak izateko, eta honela politika integrala egiteko bai tekniko aspektuan eta baita lurralde aspektuan; bukatu du esanez uste dutela, ez arazo bat, baizik eta gainbalioa izango lukeela Txingudi mankomunitatea Gipuzkoako hondakinen partzuergoko kidea izatea.

Asenjo jn.

Aipatzea, ez Dubreuil jaunak esan duen bezala bat, baizik eta epai judizialak bat baino gehiago daudela horren aurka, eta alderdi sozialistak beti esaten duela epai judizialak errespetatzen dituela, agian igual beti ez, gogoratu behar dela GHKSA, EAJ eta PSE alderdien akordioaren arteko kume bat dela, beraien sortutakoa, Gipuzkoako Udalak eta Mankomunitateak kontrolatzeko, nahi baduzue behar bada indarrak batzeko, baina zuek sortutakoa, eta sortu zenean zuek Txingudi mankomunitatea kanpoan utzi zenutela; beti Txingudi PSE edo EAJren esku egon dela, egon zela Txingudin errauskailua egiteko proiektua nahiz eta orain errauskailua ez du egin nahi, baita gogoratu Txingudi dela 2012. urtean Gipuzkoako birziklatze maila bajaran lortu duena, beste mankomunitateak birziklapen tasa gora egin badute ere, Txingudik bera egin duela, eta hurrengo mankomunitatea tasa azpian dagoena Debabarrena mankomunitatea dela eta PSE eta EAJ kudeatzen duena; Txingudi Gipuzkoako hondakin partzuergoan sartzeko arrazoia da Dubreuil jaunaren azalpenean agirian jarri dena, botere aldatu eta PSE eta EAJk partzuergoan kontrola bere eskuetan uztea, ondo dago Txingudi hondakinen partzuergoan sartzeko eskaera egitea nahiz eta epai judizialak kontrakoak izan, baina hori baino garrantzitsuagoa ikusten da birziklapen tasak hobetzeko pausoak eman, zero zabor bidean pausoak

eman, eta filosofia hori bada ongi etorria, baina bada partzuergoaren boterea aldatu eta PSE eta EAJk kontrola hartzeko, erraustea martxan jartzeko, hori ez dela onartuko.

Santamaria jn.

Asenjo jaunari galdetu dio ea zein urtetan sortu zen GHKSA, Asenjo jaunak erantzun dio zu zarela politikaria eta zuk jakingo duzula; Santamaria jaunak orduan jarraitu du esanez berak benetan ez dakiela noiz sortu zen eta ez zela galdera-tranpa bat, baina horrela erantzun dienez aipatuko diola, bat datorrela EAJ eta PSE arten bultzatutako akordioa bitartez sortu zela, eta orain sinergiak bilatzea izaten dela helburu, baina bere galdera ez zihoala hortik, eta Asenjo jaunari galdetu dio ea zure alderdia ez zegoen baita GHKSA sortu zenean?

Asenjo jn.

Ez diola ukatuko bere alderdia EA han zegoela, baina berriro diola GHK, EAJ eta PSEn arteko akordio baten bitartez sortu zela.

Bozketa

Bozketa egin ondoren, emaitzak hauek izan dira:

Aldeko botoak: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ 5)

Kontrako botoak: 7 (BILDU 7)

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, proposamena ez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Adineko pertsonen jasotzen duten tratu txarren aurka sentsibilizatzeari eta horri aurrea hartzeari buruzko mozioa, PSE-EE(PSOE)k aurkeztutakoa.

JUSTIFIKAZIOA

Europar lau milioi agurek baino gehiagok pairatzen duten indarkeria fisikoa (10.000 egunean), 29 milioik gehiegikeria psikologikoak pairatzen dituzte, eta 2.500 inguru hiltzen dira haien familiartekoren batek eraginda; hori guztia **Europako adineko pertsonen ematen zaien tratu txarri aurrea hartzeari buruzko txostenean** Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) jasotakoaren arabera. Horrez gain, demenziaren bat edo minusbalotasunen bat dutenek, edo premia handien duten herritar-sektorearen batekoak direnek errazago izan dezakete gehiegikeriaren bat pairatzea.

Europar, 60 urtetik gora duten 8.300 pertsona baino gehiago erailtzen dituzte. Heriotza horien % 90 diru-sarrerara gutxi edo ertain duten herrialdeetan gertatzen dira. % 30ek (hau da 2.500 inguru) tratu txarra jaso zuten. 2010ean, asko izan ziren tratu txar hori jaso zuten adinekoak. Agureen % 2,7k

(adinean aurrera joandakoetatik lau bat milioi pertsona, alegia) gehiegikeria fisikoa pairatzen du txostenaren arabera (horietatik % 0,7k sexu-gehiagikeria ere pairatu izan du).

Europar ia % 20k tratu txar psikologikoa pairatzen dute. Horrek esan nahi du 30 milioi inguru direla, txostenaren arabera, hori pairatzen dutenak. Tratu txarra areagotu egiten da minusbalotasun kognitiboren bat edo mendekotasunen bat duten agureen kasuan.

Espanian 2.401 inkesta egin ziren etxez etxe, eta aurrez aurre. Emaizaren arabera, % 0,8k tratu txar fisikoa jaso du, eta % 0,3k buruko tratu txarra. Arduragabekeria (zainketa txarra edo adinekoa ezertan kontuan ez hartzea) % 0,3k. Gutxieneoak dira ekonomiaren arloan emandako tratu txarrak (% 0,2) eta sexuaren arloan emandakoak (% 0,1). Espainian, azterketen arabera, 60 urtez gorako 31,4 hildako dago urteko.

Euskadin egindako azken azterketak (2010. urtea) agerian utzi du 60 urtez gorako 13.000 pertsonak paira lezakeela tratu txarren bat, halakotzat ulertuta antsietate-egoerak, depresioa, higie-ne-eza, etxebizitza bizitzeko egoera txarrean egotea, nahiz adinekoen zainketa egiten dutenen aldetik etor daitekeen tratu txar fisiko nahiz psikikoa.

Argi eta garbi utzi behar ditugu, halaber, tratu txarraren beste alderdi ez horren ezagunak; besteak beste, adinekoen sentimenduek duten garrantziaz ez jabetzea, haien iritzia aintzat ez hartzea, edo haien partaidetza ez sustatzea.

Hortaz, errealitate lazgarria eta mingarria da, eta oraindik ez oso ezaguna.

Hain zuzen ere, arazo honen inguruan nazioarteko herritarren kontzientzia bultzatze aldera, **adineko pertsonak jasotzen duten gehiegikeriaren eta tratu txarraren aurka kontzientzia hartzeko nazioarteko eguna** ezarri zen ekainaren 15a. Aipatu eguna adineko pertsonak jasotzen duten gehiegikeriari eta tratu txarrari aurrea hartzeko nazioarteko sareak (INPEA) sustatzen du; erakundea 1997an sortu zen Adelaidako (Australia) gerontologiari buruzko mundu-kongresutik.

Sare horren helburuen artean ditugu: *adinekoen aurkako indarkeriarekin eta gehiegikeriekin lotura duten arazoei buruzko kontzientzia bultzatzea nazioarteko herritarrengan, eta arazo horri buruzko ikerketa eta prestakuntza sustatzea.*

Bestalde, 2002an adinekoen aurkako tratu txarrei globalki aurrea hartzeko **Torinoko Adierazpenak** honako hau proposatu zuen: *adinekoek pairatzen duten tratu txarra arazo unibertsala da, eta herrialde garatuetan zein garatze-bidean daudenetan gertatzen da. Ezinbestekoa da, tratu txarraren gertakaria sakon ulertuko badugu, kultura- eta genero-ikuspegi bat edukitzea. Adinekoen aurkako tratu txarrari eraginkortasunez aurrea hartuko badiogu, belaunaldien arteko elkartasuna bultzatuko duen eta indarkeria arbuatuko duen kultura garatu beharko da, ezinbestean.*

Esan beharra dugu, orobat, adineko helduen oinarritzko eskubideen inguruko lanak elkarren osagarri diren bi alderdi dituela: bat ekintza zehatza da, gehiegikeria edo tratu txarra gertatu den une berean edo ondoren emango den laguntza; eta bestea, sustapena eta sentsibilizazioa da, prebentziorako defentsatik onena. Informazioak eta kontzientziarioak gizarteari eta gizarte horretako adinekoiei laguntzen diete adinekoak subjektu eskubidedun gisa ikusten, bizimodu zoriontsu eta oso-betekoa merezi duten pertsona gisa, baldin eta beren patuaren protagonista badira.

HORREGATIK GUZTIARENGATIK

KONTUAN HARTURIK

1. Ordizian helduen premia partikularrei heltzeko egiten ari diren ahaleginak (udalerriko gizarte-etxean/jubilatuena etxean lantzen diren ekintzetatik, gizarte-zerbitzuen eta osasun-departamentutik, gizarte-ongizateko udal-kontseilu aholku-emailetik, eta udaleko bestelako kudeaketa-arloetatik).
2. Ordiziako helduentzako I. planaren zirriborroa.
3. 'Euskadi lagunkoia' ekimena.
4. Beste ekimen batzuk; emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-plana.

ETA AINTZAT HARTUZ

Komenigarria litzatekeela udal-esparruan egungo ahaleginei balioa gehitu ahal izatea, eta komenigarria litzatekeela, halaber, gaur egun arte aintzat hartu ez den premiari arreta eskaintzea,

OSOKO BILKURA HONEK HAUXE ERABAKI DU:

1. Gizarte Ongizateko Udal Batzordeari eskatzea 2013. urtearen bukaerarako Ordiziako helduen eskubideak sustatzeko eta babesteko jarduera-proposamen bat landu dezala, eta horrela, udalari gomendioak egitea arlo horretan aurrerapausoak emateko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn.

Adierazi du berandu samar ekarri dela mozio hau, eta zentzu gehiago zuela "adineko pertsonen jasotzen duten gehiegikeriaren eta tratu txarraren aurka kontzientzia hartzeko nazioarteko eguna ospatu zen ekainaren 15a" baino lehenago ekarri balitz; hala eta guztiz ere oraindik ere zentzua baduela, zeren eta errealitatea kezkarria da eta ez dagoela behar bezala aztertuta, horregatik mozio modura ekarri da, eta konkretuki eskatzen dela Gizarte Ongizateko Udal Batzordeari 2013. urtearen bukaerako Ordiziako helduen eskubideak sustatzeko eta babesteko jarduera-proposamen bat landu dezala, eta horrela, udalari gomendioak egitea arlo horretan aurrerapausoak emateko.

Maiza andrea

Egia da, gai honek geroz eta oihartzun gehiago duela, baina gure herrira ekarrita, nahiz eta daturik ez egon, dagoen pertzepzioan oinarrituta badirudi gu heltzen garen helduetara oraindik hemen ez dela ematen horrelako arazorik, eta hori esateko Osakidetzako teknikariengatik jasotakoa erabiltzen da; azkenik adierazi du datorren irailtik aurrera planteatuko dela egitasmoren bat nola egiten den azterketa gai honen errealitatea herri mailan jakiteko.

Dubreuil jn.

Adierazi du mozio honekin ez dela alarrik sortu nahi; nahiz eta Estatuko eta Europako datuak oso kezkarriak izan, batez ere kasuen bolumenarengatik, estatistika horietan jasotzen dena ez da bakarrik tratu txarra fisikoa, baizik eta beste motako tratu txarrak: ansiedade, desatentzioa, depresioa, garbiketa falta... eta bere mozioa gehiago mota horretako tratu txarrera zuzendu nahi duela.

Maiza and.

Bat egin du Dubreuil jaunak adierazitakoarekin, eta adierazi du Matia Fundazioa kontra-kanpaina egiten ari dela tratu txar gai honek eragiten dituen beldurrak kentzeko, bukatu du esanez gaia oso delikatu dela eta ekin egin beharko zaiola.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- EHGAMen eskariz BILDUK aurkeztutako proposamena, sexu askatasunaren nazioarteko eguna dela eta Jackes etxean bandera ipintzeko.

Proposamena

* Ekainak 28, egunean zehar, Gay, Lesbiana, Transexual...en bandera, Udaletxeko balkoian jartzeko eskaera luzaten dugu.

* Ekainak 28an Jakes etxearen balkoian pankarta jartzeko eskaera.

Leloa: EKAINAK 28 SEXU ASKAPENERAKO EGUNA.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate in.

Aklaratu du mozio hau ez dela bakarrik ekainaren 28an pankarta Jakes etxean jartzeko, baita ere Gay, Lesbiana, Transexual.....en bandera, ekainaren 28an Udaletxeko balkoian jartzeko.

Gutierrez andrea.

Adierazi du EGHAM gaizki idatzita dagoela, eta zuzen honela idazten dela: EHGAM.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Ekonomia eta Finantza Plana onartzea Aurrekontu Egonkortasuna lortzeko.

Proposamena

2013ko martxoaren 7an onartu zen 2013ko Aurrekontua 149.352,00 euroko defizitarekin, SEC terminoetan.

2013ko apirilaren 10ean, Kontuhartzaileak Ekonomia eta Finantza Plana idatzi zuen 2014-2016 epealdian egonkortasuna berreskuratzeko. Plan hura Udalbatzak 2013/04/25ean onartu zuen.

Kreditu transferentzien 1go. Espedienteari zegokion Ekonomi eta Finantza Plana, Kontuhartzaileak 2013ko apirilaren 18an prestatu zuen eta Udalbatzak 2013/4/25ean onartu.

Kreditu gehigarrien 1go. Espedienteari zegokion Ekonomi eta Finantza Plana, Kontuhartzaileak 2013ko maiatzaren 2an prestatu zuen eta Udalbatzak 2013/5/30ean onartu zuen.

Kreditu aldaketa horien ondoren, hurrengo hauek onartu dira:

Kreditu gehigarriak: 2, 3 eta 4

Kreditu transferentziak: 2, 3, 4 eta 5.

Kreditu gaikuntzak: 1

Kontuhartzaileak, hasierako Ekonomia eta Finantza Planerako Gobernu Taldeak onartutako irizpideak jarraituz, Plan berria prestatu du.

Plan berri honek aldaketa txikiak sartzen ditu hasierako Planean eta baieztatzen du 2014-2016an Egonkortasun Legea beteko dela.

Plenoko Gaien Batzordeak 2013-6-19an emandako aldeko diktamena.

AKORDIO PROPOSAMENA

2013-5-29ko Udalbatza arte onartutako kreditu aldaketei dagokien Ekonomia eta Finantza Plana onartzea 2014-2016 epealdian Egonkortasun legearen barruan egoteko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn.

Adierazi du azkeneko plana onartu zenetik kreditu aldaketa batzuk onartu direla, eta horregatik beharrezkoa dela beste plan berri bat onartzea. Plan berri honek datorren urteko aurrekontua orekatzeko oso eragin txikia du (bi gastu txiki daude datorren urteko aurrekontuan kontenplatu beharko direnak), azkenik baieztatu du eszenario berriarekin 2014-2016an egonkortasun legea betetzen dela.

Dubreuil jn.

Adierazi du orain arte bere taldeak onartu dituela Planak, baina hemendik aurrera bere jarrera aldatu egingo dela ziur asko, zeren eta ez zaie esplikatzen, kontuhartzaileak Udal Gobernuaren kriterioak jarraituz egiten dituela planak, eta orain esplikatzen bada ondo gaia igual bere jarrera aldatu egingo duela; azkenik adierazi du jakin nahi lukeela plana egiteko garaian nortzuk diren kriterio horiek, teknikoak diren, politikoak diren

Kontuhartzailea jn.

Erantzun dio neurri batez kriterio hauek politikoak ere badirela, eta azpimarratu du 2013ko aurrekontuan izandako arazoa zuzentzeko prestatutako erreferentziazko planean agertzen direla kriterioak, besteak beste, gastu eta sarreraren kapitulu desberdinen eboluzioaren aurreikuspena, barne fondo foroaren eboluzioa; Udalari ez dagokion kapitulu bakoitzarentzat egiten den aurreikuspena, eta aldiz Udalak ahalmena duen aspektuarekiko proposamenak baita ere. Bukatu du esanez, nahiz eta pentsatu banatu zela, begiratu duela ea erreferentziazko plana banatu zitzaizen zinegotzi guztiei.

Dubreuil jn.

Adierazi du hanka sartu duela gai honetan, eta hemendik aurrera plan hauek bere kontrako bozka jasoko dutela.

Alkate jn.

Adierazi du jakin nahi lukeela zertan sartu duen hanka alderdi sozialistak gai honetan.

Dubreuil jn.

Erantzun dio hanka sartu dutela zeren eta ez dute behar bezala begiratu lehen planeko Udal Gobernuko kriterioak, eta azkenik ohartu dela erabiltzen diren kriterioak badutela politiko kutsua, nahiz eta jakin azkenean plana bete beharreko baldintza tekniko bat dela.

Alkate jn.

Dubreuil jauna horren legalista dela jakinda, eta ikusita legez eskatzen den baldintza bat dela, Dubreuil jaunaren jarreraren aurrean bere harridura agertu du.

Santamaria jn.

Adierazi du nahiz eta 2013 aurrekontuen aurka bozkatu, jakinda legez bete beharreko tramite bat dela, ez dutela bere onarpena oztopatuko eta horren arabera abstenitu egingo direla.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 1 (PSE-EE (PSOE)1)

Abstentzioa: 5 (EAJ/PNV 5)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Kreditu transferentzien espedientearen onartzea

Proposamena

2013ko Aurrekontuaren exekuzioaren azterketa egin da eta beharra ikusi da hainbat kreditu aldaketa egiteko. Kasu batzutan uste ez zuten beharrak sortu direlako eta beste batzutan beharrak aurreikusitakoak baino handiagoak direlako.

Zehaztasun guztiarekin taula bat prestatu da eta aldaketak atal desberdineko partidei afektatzen dituzenez, Udalbatzak onartu beharko du.

Plenoko Gaien Batzordeak 2013-6-19an emandako aldeko diktamena.

AKORDIO PROPOSAMENA

Ondoko Kreditu Transferentzien espedientea onartzea.

Kreditu Igoerak

Eragiketa arruntak	29.395,00
Kapital eragiketak	19.833,47
Guztira	49.228,47

Kreditu Murrizketak

Eragiketa arruntak	29.395,00
Kapital eragiketak	19.833,47
Guztira	49.228,47

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn.

Banatu zen espedienteko datuen esplikazioa eman du.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- Kreditu gehigarriaren espedientearen onarpena

Proposamena.

Bi gastu garrantzitsuak sortu dira azken denboraldian. Bat, pabiloi baten erosketa eta bestea Elkargiri kobratutako abalaren itzulketa.

Pabiloiaren erosketa 500.000 eurotan finkatu da eta hainbat aukera aztertu ondoren erabaki da aproposena delakoan.

Elkargiri 120.000 euro kobratu zitzaizkion 2010-9-24an eta Epaitegiak erabaki du itzuli egin behar zaiola, interesekin batera, 138.000 euro inguru osatzen duelarik.

Gastu hauei aurre egiteko aukera bakarra mailegu bat eskatzea dela.

Plenoko Gaiaren Batzordeak 2013-6-19an emandako aldeko diktamena.

AKORDIO PROPOSAMENA

Ondoko Kreditu Gehigarria onartzea.

KREDITU GEHIGARRIEN 5. ESPEDIENTEA

KREDITUEN IGOERA			
PARTIDA		IZENA	KOPURUA
622.435.00.01		Pabiloiaren erosketa	500.000,00
771.434.12.01		Ordainketa Elkargi-ri	138.000,00
			638.000,00
FINANTZIAKETA			
933.01		Maileguak	638.000,00

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn.

Adierazi du bi gastu garrantzitsuak sortu direla azken denboraldian. Bata, pabiloi baten erosketa eta beste bere egunean exekutatu zen abalaren itzulketa.

Pabiloiaren erosketari dagokionez, prezioa 500.000,00 eurotan finkatu da eta erabaki hau, hainbat aukera aztertu ondoren hartu da, eta denen artean onena dela kontsideratuta.

Elkargiri exekutututako abalari dagokionez, iritsi berri den epaiak agintzen duenaren arabera Elkargiri exekutututako abala itzuli egin behar zaio interesekin batera, guztira 138.000,00 euro.

Bukatu du esanez gastu hauei aurre egiteko, aukera bakarra mailegu bat eskatzea dela.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- Ordiziako 6. industrialdeko B-3 letrako industria-nabea erosteko proposamena.

Proposamena

Ikusita:

Aipaturiko industria-nabeak ezaugarri hauek dituela:

Ordiziako sei zenbakidun poligonoko B-3 letrarekin izendaturiko industria-nabea. Solairu bat eta bulegoetarako tarteko solairu txiki bat dauzka. Sei metro eta laurogeita sei metro eta berrogeita hamasei dezimetro karratu ditu solairuan. Iparrean muga du: Oria erreka, Hegoan: Pedro Armendariz; Ekialdean: Garmendia, Vicente eta Emparanza jaunen finka; Mendebaldean: Pedro Armendariz eta Micaela Imazen finka, eta guztira mila zortziehun eta hogeita zortzi metro karratu ditu.

Udalaren ordezkariak eta jabeek izandako negoziazioek lokala erosteko akordioa ekarri dutela, erosketa 2013 urtearen barne gauzatzeko.

Adostutako prezioa 500.000,00 eurokoa dela.

2013ko ekainaren 18an sinatutako salerosketako erresen kontratu pribatua.

Kreditu gehigarria onartzeko espedientea.

Erosketaria buruz, aldeko txosten teknikoak.

AKORDIO PROIEKTUA:

1.- Ordiziako sei zenbakidun poligonoko B-3 letrarekin izendaturiko industri-nabearen erosketa onartzea.

2.- Alkateari ahalmena ematea beharrezkoak diren dokumentu publiko nahiz pribatuak sinatzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Adierazi du azken hilabeteetan suertatu dela operazio hau, 4 leku desberdin ikuskatu direla, eta azaleragatik, lekuagatik, eta abar ondorioztatu dela aukera onena dela; hasierako prezioa 650.000,00 eurokoa bazen ere, negoziatu ondoren 500.000,00 eurotan geratzen da, eta azkenik ikusita beste interesaturen bat ere bazegoela, eta baita zegoen premia, lehenbailehen gauzatu nahi izan dela.

Santamaria jn.

Adierazi du txostenak aztertu ondoren, ondo ikusten duela operazioa, baino kritika bat egin nahi duela, zeren eta alkateak adierazi badu ere azken 4 hilabeteetan hasi zirela gaia aztertzen, joan den astera arte inongo berririk ez dutela izan, eta normala izango zela Batzorderen batean aipatzea lokala erosteko gaia begiratzen ari zela.

Dubreuil jn.

Adierazi du aldeko bozka emango duela, erosketa ona iruditzen zaiola, eta zorionak ematen dizkio Udal Gobernuari gai honetan egin duen jesterengatik.

Alkate jn.

Santamaria jaunari erantzun dio agian egia dela esandakoa, baina Goiekiko lokala erosi zenean erabilitako antzeko prozedura eraman dela, orain 4 bat hilabete hasita aparejadore eta teknikoak aritu direla gaia aztertzen, baina dena arindu dela azken momentuan, eta maila politikoan erabakia azkar hartu behar izan dela lehen aipatu diren arrazoiengatik, eta horregatik ez dela lehenago informazioa pasatu, eta ez dela beste inongo intentzio ezkuturik egon.

Santamaria jn.

Egindako kritika berretsi du, informazioa denbora gehiagorekin eman ez zaielako, eta aipamen bat egin du atez-ateko kuboak lokal berritik banatu direlako.

Alkate jn.

Santamaria jaunari erantzun dio ez dakiela zergatik atera nahi izan duen gai hori, baino ez dela egia esaten duena, eta era guztietan konfirmatu dio erosketaren komunikazioa 17an egin zitzaiela, 18an egin zela sinadura, eta kuboak ez zirela sartu 21a arte, betiere komunikazioa egin eta gero, eta ondo dakien bezala kuboak banatzeko lekuak aurreikusita zeudela, eta azkenik lokal horretan sartu zirela handiago eta leku egokia delako.

Asenjo jn.

Zerbitzu delegazioko zinegotzi moduan bere poza azaldu du egin den erosketarengatik, eta beharrak asetzeko lokala izango delako.

Alkate jn.

Aklaratu du aurrekontratu bat ekainaren 18an sinatu zela.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

10.- 2012ko Kontu Orokorrak onartzea

Proposamena

Kontuen Batzorde Bereziak, 2013ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, aldeko irizpena eman zion 2012ko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari.

Aldeko txostena jendurrean egon da ikusgai, 2013ko maiatzaren 28ko GAOko 100. alean, eta ez da inolako erreklamaziorik edo iradokizunik jaso; beraz, aipatu iragarkian esaten den bezala, hasierako txosten hori behin betiko bihurtuko da.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4. artikuluan dagoena aplikatuta, honako hau onartzeko proposamena egin zaio Udaltzari.

AKORDIO PROIEKTUA.

2012ko Aurrekontuaren Kontu Orokorra onartu.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn

Adierazi du urtero ekarri beharreko dokumentua dela, eta bertan bai Udala, Erakunde Autonomo, eta Sozietate Publikoen Kontuak jasotzen direla. Jarraitu du esanez, 2013-05-22an eginiko Kontu Berezi Batzordeko bileran kontuen berri eman zela, zein kontu dauden eta zein aldaketa eman diren 2011ko kontuarekiko, era honetan azpimarratu zen likideza ratioa gutxitu egin dela pixka bat, nahiz eta oraindik normalago baino altuagoa izan, tesoreriaren ratioa okerrera egin duela, eta bermeak eta zorrak oso ondo daudela. Ordizia Lantzen sozietateari dagokionez dauden zorren berri eman zen, eta horrek Udalaren aurrekontuetan duen eragina, eta azkenik Gereñu jaunak Majoriari buruz prestatutako buruzko txostenaren berri eman zela, eta Kontu Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman ondoren, iragarkia ikusgai egon da 15 egunez, 2013-05-28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik, eta inongo alegaziorik aurkeztu ez denez, Udal Osoko Bilkurari onartzea dagokiola kontu Orokorra, ondoren Gasteizko Kontu Epaitegira bidaltzeko.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 5(EAJ/PNV 5)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

11.- Osoko bilkuran kontu emateko finantza- eta aurrekontu-informazioa

21/2003 Foru Arauak ezartzen du, gutxienez hiru hilean behin Alkateak Osoko Bilkuran finantzen eta aurrekontuen inguruko informazioa emango duela.

Aurretik 2006-03-30ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeko irizpenaren bidez eta ondoren 2006-03-30ko Udaleko Osoko Bilkuraren bidez onartu zen hiru hiletik behin ondorengo informazioa ematea:

- Funtzioen balantzea.
- Diru-sarreren Aurrekontu Exekuzioa.
- Aurrekontu krediturik gabe burututako gastuak
- Udal Diruzaintzaren egoera

2013-06-19ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aztertu ondoren, Osoko Bilkurara bideratzen da 2013-06-14ko informazioa.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn.

Adierazi du 21/2003 Foru Arauak ezartzen duela, gutxienez hiruhilabetean behin alkateak Osoko Bilkuran finantzen eta aurrekontuen inguruko informazioa emango duela, eta jarraian espedienteari buruzko azalpenak eman ditu.

Udal Osoko Bilkura jakitun geratu da.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

12.- Alkatetza Dekretu bidez onartutako kredituen aldaketen kontu ematea

Gipuzkoako Toki Erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27.3 artikulua araber, Osoko Bilkuran Aurrekontuen aldaketen berri eman behar da.

Maiatzaren 29ko Udalbatzatik hona onartutako dekretuak hauek dira:

- Kreditu transferentziak

Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
----------	------------------	------------

- Kreditu gehigarriak

Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
3	429	3.500,00
4	160	2.000,00

- Kreditu eransketak

Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
----------	------------------	------------

- Kredituak gaitzea

Zenbakia
1

Dekretu zenbakia
397

Zenbatekoa
1.610,00

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzailea jn.

Adierazi du banatu direla 2013-05-29ko Udal Osoko Bilkuratik hona Alkatetza Dekretu bidez onartutako kredituen aldaketak, eta besterik gabe horien berri ematea dela.

Udal Osoko Bilkura jakitun geratu da.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

13.- Elkargiren abalaren exekuzioagatik administrazioarekiko auziaren inguruko epaiaren berri ematea.

Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko epaitegiko 2013ko apirilaren 13ko epaiaren edukiaren berri ematen da:

Demandatzailea: Elkargi S.G.R.

Errekurritutako erabakia: Ordiziako Udalaren 2010eko maiatzaren 24ko Ebazpena: Ebazpen horren bitartez, Oianguko kontzesioa erreskatatu eta Udalean jarrita zegoen 120.000,00 euroko abala exekutatzea. erabaki zen.

Iritsi den epaiaren edukia: Elkargi S.G.R.ren errekurtsioa aintzat hartu, eta Udala behartzea kobratutako bermea gehi interesak itzultzera: guztira 138.000,00 euro (120.000 + 18.000:interesak).

Errekurtsioak: Esteban Umerez abokatuak, 2013ko maiatzaren 28ko datan egindako txostenaren arabera, errekurritu ezina da.

Epaia betetzeko epea: bi hilabete, jakinarazpena jaso denetik aurrera kontatuta (2013ko uztailaren 30an amaitzen da).

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Hasi da esaten Dubreuil jaunak galdetu ziola ea zergatik ekartzen zen puntu hau Udal Osoko Bilkurara, eta erantzun ziola Udalak hartutako erabaki baten ondorioz etorri den epaia izanik, horregatik nola geratu den ere informatzeko ekartzen dela Udal Osoko Bilkurara.

Jarraian, auziari buruzko informazioa ematen du, azpimarratuz Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko epaitegiko 2013ko apirilaren 13ko epaiaren edukiaren arabera Elkargi S.G.R.ren errekurtsioa aintzat hartu, eta Udalari behartzen diola kobratutako bermea gehi interesak itzultzea: guztira 138.000,00 euro (120.000+18.000: interesak)

Bukatu du esanez, Esteban Umerez abokatuak, 2013ko maiatzaren 28ko datan egindako txostenaren arabera, errekurritu ezina dela.

Oiangu Bizirik Plataformako partaide batek hitza eskatu du, eta alkateak erantzun dio, gai zerrendako puntu guztiak amaitu ondoren, hau da galde-eskeak atalean emango zaiola hitz egiteko aukera.

Udal Osoko Bilkura jakitun geratu da.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

14.- Iparra-hegoa kooperazio programaren barruan ordiziar borondatezko lankideari diru-laguntza.

Proposamena

Ipar-Hegoa kooperazio programetan parte hartzeagatik Ordiziako gazteei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzen dituen araudia jarraituz eta 2013 urteko ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren,

Honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

EÑAUT AGIRRE ITURRIOZ (Ordizia, 1990) ordiziar gazteari 904,97 euroko diru-laguntza ematea onartzea AFRIKArako kooperante gisa joateko.

EÑAUT AGIRRE umezurtzak hartzen dituen eskola batean arituko da lanean, ondorengo lanak burutuz:

- Irakasleei eskolak ematen lagundu, baita irakasgaien plangintzan aholkularitza ere.
- Eskolako botikina berritu eta osatu, ingelesezko instrukzioak gehitu.
- Eskolako baratzean edo sukaldean lagundu, beharren arabera. Baita behar izanez gero egurrak biltzen edo erosketak egiten ere.
- Haurrei osasun hezkuntza oinarritzkoa irakatsi.

- **Eskolako orduen arteko atsedendietan hurrekin jolastu edo ekintzak antolatu.**

Proiektua bultzatuz honako erakunde hauek egongo dira: chazonafrica.org.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza and.

Adierazi du aurten proiektu bakarra aurkeztu dela, Eñaut Agirre Iturrioz jaunak aurkeztutakoa hain zuzen ere; Eñaut Agirre jaunak sendagile ikasketak dituela eta iaz Kenian hasitako proiektua jarraitu behar duela, eta dirulaguntza programak arautzen duen bezala dirulaguntza garraio-gastua finantziatzeko izango dela, guztira 904,97 euro.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

15.- Eskaerak eta galderak

Oiangu Bizirik Plataformako kide batek, exekutatu abalaren dirua erabiltzeko erabakia hartu zutenen aurka ardura politiko eta ekonomikoak eskatu behar direla adierazi du; gogorarazi du 2010. urtean Udal Gobernu Batzordeko bilera batean, han zeuden Oingu Bizirik Plataforma, EA, Ezker Abertzalea, eta Ezker-Batua/Aralarrek diru hori ez erabiltzea eskatu zutela, eta PNV eta PSE gaia aztertzeotan geratu zirela. Bere interbentzioa amaitzeko adierazi du bere momentuan salatu zutela 120.000 euroko diru hori zutoinak aldatzeko erabili izana, eta zutoinak aldatzeko kostua 147.000 eurokoa izan zela.

Alkate janaunak adierazi du, zabalik dagoen gai bat dela, eta aztertzen ari direla, eta ondorioak ere aztertuko direla.

Redondo jaunak gai honi buruzko bere hausnarketa egin ondoren, galdetu du ea kopurua berreskuratzeko aukerarik ikusten den.

Alkate jaunak adierazi du gaia osotasunen aztertzen ari dela, orain hilabete eta erdi iritsi den epai hau, gai osoaren zati bat dela, eta abokatuaren hitz egin ondoren, errekurritu ezina ; bukatu du esanez ez dakiela soluzio bat ematerik izango den, baina saiatuko direla erantzun bat ematen.

Dubreuil jaunak adierazi du ez duela gogoratzen nola izan zen , baina pentsatzen duela espediente bat egongo dela, eta han azalduko direla non oinarritu ziren hartutako erabakiak eta espediente hori aztertu egin beharko dela.

Alkate jaunak adierazi du hemen hitz egin dena ikusita, eta osotasunean begiratuta, Udal Gobernuak aintzat hartu dituela hemen atera diren ondorioak.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.